

NAO, 264. zenbakia, 2022ko abenduaren 30a, berezia.

19/2017 FORU LEGEA, abenduaren 28koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.

Hamahirugarren artikulua.–Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 ForuLegea aldatzea.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 162.1. artikulua testu hau izanen du:

“1. Zerga eskatuko da tarifa hauei jarraikiz:

Kuotak:

a) Turismoak:

–8 zaldi fiskal baino gutxiago: 22,30 euro.

–8 zaldi fiskaletik 12ra bitartekoak: 62,72 euro.

–12 zaldi fiskal baino gehiago eta gehienez 16: 133,78 euro.

–16 zaldi fiskal baino gehiagokoak: 167,30 euro.

b) Autobusak:

–21 leku baino gutxiagokoak: 156,08 euro.

–21 lekutik 50era bitartekoak: 223,01 euro.

–50 plaza baino gehiagokoak: 278,77 euro.

c) Kamioiak:

–1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak: 78,13 euro.

–1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak: 156,08 euro.

–2.999 kg-tik gora 9.999 kg bitarteko karga erabilgarria 223,01 euro.

–9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak: 278,77 euro.

d) Traktoreak:

–16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak: 38,32 euro.

–16 zaldi fiskaletik 25era bitartekoak: 76,61 euro.

–25 zaldi fiskal baino gehiagokoak: 153,02 euro.

e) Atoiak eta erdi-atoiak:

–1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak: 39,10 euro.

–1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak: 78,13 euro.

–2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak: 156,08 euro.

f) Bestelako ibilgailuak:

–Ziklomotorrak: 5,62 euro.

–125 cc-ra bitarteko motozikletak: 8,44 euro.

–125 cc baino gehiagoko motozikletak, 250 cc-ra bitarte: 13,98 euro.

–250 cc baino gehiagoko motozikletak, 500 cc-ra bitarte: 27,56 euro.

–500 cc baino gehiagoko motozikletak, 1.000 cc-ra bitarte: 55,16 euro.

–1.000 cc baino gehiagoko motozikletak: 110,30 euro.